

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

298 - 2021eko ILBELTZA



ILUSIOA
GALDU GABE

ARAXES ESKOLAKO IKASLEAK, TELEBISTAKO ARTISTA!

Beteluko Araxes Ikastetxeko LH1 eta LH2-ko neska-mutilek egun berezia bizi izan zuten eskolan urriaren 15ean. Ene Kantak programarako bideoklip bat grabatu zuten, *Liburutegi bat* abestirako. Kantuan, dantzan, lehiaketan, galderak erantzuten eta koreografia dantzatzuz gozatu ederra hartu zuten. Telebistako programak nola grabatzen dituzten bertatik bertara bizitzeko aukera paregabea izan zuten. Ezin hobeki portatu ziren, izugarri gozatu zuten, eta primeran pasa zuten. Azaroaren 26an eman zuten grabatutakoa; oraindik ikusi ez baduzu, sar zaitetz esteka honen bitartez!



· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Tere Mariñelarena, Lekunberriko Udala, Larraungo Udala, ETB, Igor Mitxaus, Korrika, Larraungo Hazi, Labrit.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Mikel Urriza eta Araitz Amatria.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

04

KUXKUXEAN Ilbeltzeko zorion agurrak.

08

ELKARRIZKETA



Haritz Orcaray eta Edurne Arribillaga.

14

BATZARRE Nerea Urbizu, 2022ko Korrikaren abestiaren zuzendari artistikoa.

20

ERREPORTAJEA



Lekunberriko alde zaharreko lanak.

08

ELKARRIZKETA Mitxauseneako liburutegia, digitalizatzen.

22

ERREPORTAJETXOA Olentzerori eta Mari Domingiri harrera.

28

PLAZATIK PLAZARA Estimulazioa, zaintzaz harago.

31

AGENDA





Ane Amoztegui Goikoetxea

Ilbeltzaren 13an, 3 urte.
Zorionak, sorgintxo!
Ongi pasa zure egunean! Asko maite zaitugu! Muxu pottolo-pottolo bat famili guztien partez!

Eñaut Garmendia Aristi

Ilbeltzaren 4an, 4 urte.
Zorionak, ttikito!! Segi beti bezain alai eta jatorra izaten!
Asko asko matte zatteu!!!
Muxu haundi bat etxeko guzin partez!



Mikel Aldareguia Mateo

Ilbeltzaren 9an, 5 urte.
Zorionak eta ongi pasa. Muxu haundi bat, aitatxo eta amatxoren partez. Asko maite zaitugu.



Unai Argiñarena Saralegi

Ilbeltzaren 16an, 7 urte.
Unai txapeldun, jarraitu orain arte bezala guztiok alaitzen zure dantza eta kantuekin.
Muxu pottolo bat familia guztiaren partez.

Enara Etxarri Urbizu

Ilbeltzaren 18an, 8 urte.
Zorionak Enara, neguko gure txoritxo alai!
Ongi ospatu eta muxu handi bat etxekoen partez.



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



UHOLDEAK EURITEEN ONDORIOZ

Erruz egin du euria abenduan, eta euriteek ondorio nahiko larriak utzi dituzte. Besteak beste, Araiztik Tolosara doan errepidea moztuta geratu zen ibaiak gainezka egin zuelako; auto bat baino gehiago geratu ziren bidean ez aurrera, ez atzera, eta istripuren bat ere izan zen. Lekunberrin, Albusualdea kalea ere moztu egin behar izan zuten. Gainera, lur-jausi asko izan ziren.



LEKUNBERRIKO ETXEEN AZTERKETA HISTORIKOA

Lekunberriko etxeen azterketa historikoa egiteko proiektua izan da irabazlea aurrekontu parte hartzaileetan. 158 bototik 96 lortu ditu Ondare Kultur Taldeak sustatutako egitasmoak. Honako hauek ziren aurkeztutako proiektuak: Lekunberri eta Larraungo erraldoi eta kilikien konpartsarako figura berriak, Plazaola kiroldegian atse-denerako eta erlaxatzeko gunea, eta Disk Golferako baliabideak.




ALDAZKO ERREPIDEA BERRITU DUTE

Aldazko herritarrek errepide berri-tua dute herrira ailegatzeko. Despopulatzeko arriskuan dauden eremuetako bideen hobekuntza-ren planaren barruan egin diren obretako bat da; Lurralde Kohe-siorako Departamentuak abiatu du plan hori, eta 4 milioi euroko inbertsioa egin du. Guztira, 24 errepide konponduko dituzte.

► Kemen Aldabe (Lekunberri)



*Egunak joan eta etorri
bertan dira Eguberriak
Olentzero eta erregeak
dira ongi-etorriak
Eguraldiak ez du lagundu
uholde ikaragarriak
Aurten ez ditugula merezi
ikatzeko opariak
Nahikoa dira herriko plazan
dauden pibote berriak*



Hurrengoa: Hodei Buldain (Lekunberri).

LEKUNBERRI, AURRERA DOAN HERRI

Lekunberri. Leku on eta berri. Leku ona eta berria. Gustoko dut esatea zer esan nahi duen eta nondik datorren izena ezagutzen ez dutenei. Izan ere, herriaren historiak, bertako jende eta etxeek, bertako ohiturek, jai eta tradizioek, bertako berdegune eta txokoek, eta abarrek, lurrari gehien sustraitzen zaion gaietako bat sortzen dute: bertakoa izatearen sentimendua.

Lekunberri bisitatzea historiaz blaitzea da, Alde Zaharretik ibilaldi bat eginez, mugikorra eskuan, modernitatearekin bat eginda instalaturiko QR kodeen bidez, bertako eraikin eta etxe zaharren historia ezagutzuz. Herri osoa zeharkatzen eta bi zatitan banatzen duen zeharbidea igarotzea da ere; alde batetik, Vegako pasealekutik joan eta, bestetik, Plazaolako Bide Berdetik itzultzen. Noski, Plazaolako geltokian ezinbesteko geldialdia eginez, bere bagoi eta kantinarekin, eta Malkorrera igoz Lekunberri osoko panoramika ikusgarria eskaintzen duen begiratokitik.

Kirolari eta abenturazaleentzat ere badago tartea, Hirimuga Parkeko BTTko jaitzieretarako arrapalak edo Beigorri Parkeko sokak eta tirolinak, hura sortzen duen haritzez inguratutik.

Eta hori guztia, nola edo hala, konpainia onean edo bakarka, oinez edo bizikletaz, eta bertako gastronomia dastatuz Lekunberriko eta zonaldeko karta gastronomiko zabala eskaintzen duten jatetxeetako edozeinetan.

Duela gutxi, Munduko Turismo Erakundeak Lekunberri munduko herri turistiko onenetako bat izendatu zuela jakinarazi zuen, eta, horren ondorioz, Best Tourism Village gisa bereizten duen zigilua jaso dugu. Sari honek Lekunberri landa-turismoaren adibide bikain gisa identifikatzen du, aktibo kultural eta natural aitortuekin, landa-eremuko eta komunitateko balioak, produktuak eta bizimoduak zaindu eta sustatzen dituztenekin, eta baita alderdi guztietan (ekonomian, gizartean eta ingurumenean) berrikuntzarekiko eta iraunkortasunarekiko ageriko konpromisoa defendatzen dutenekin.

Udalaren arlo turistikoaren ikuspegia, bultzada eta garapena baita zenbait pertsona, langile eta erakunde pribatuk egindako lana aintzat hartzeaz gain, sari honen bultzada berri bat suposatzen du nazioarte mailan gure landa eremuko turismoarentzat. Lekunberri beti izan da leku abegikorra, eta historikoki turistak eta aldi baterako bidaiariak hartu dituena, baina egia da, halaber, azken 25 urteetan bere garapenaren aldeko apustu garrantzitsua egin dela, besteak beste, Plazaolako Partzuergoaren sorrerarekin (urte askoan zehar, Udalen honen sortu eta buru izan duena), eta azken urteetan turismoa eta herriaren kokapena sustatzeko lana egin da bere balioa nabarmentzeko, eta hala aitortua izan da MTE-aren Idazkari nagusiaren aldetik, ahaztu gabe, egindako lan eraginkor eta onaren ondorioz.

Lekunberri, berez, eta ez kasualitatez, 90eko hamarkadaren amaieran zituen 800 biztanletik gaur egun garen 1.600 biztanlera igaro da. Hau da, azken 25 urteetan, biztanleria bikoiztu egin da landa-eremuko despopulazio-testuinguru batean. Ibilbide horretan ekintza eta

palanka ugari egin dira, baina, batez ere, 4 dira honaino iristea ahalbidetu duten zutabeak: A-15 autobia Lekunberri pasatzea, Iruñe eta Donostiatik ordu erdira koatzen gaituena; Industrialdea garatzea, zuzeneko 500 lanpostu inguru sortuz; Turismoaren aldeko apustua; eta zerbitzuak zabaltzea. Horiek guztiak, bere garaian herrian eta herritarren artean zenbait desadostasun eta oposizio politiko sortu bazituzten ere, horiek guztiak gabe, Lekunberri ez litzateke gaur egun dena izango. Ondare horren beste erronka batzuk bizi ditugu egun, hala nola, ongizatea handitzea zerbitzuak indartuz, industriaren garapena kalitatezko enplegu eta landa eremuko garapen gisa, eta nola ez, mugikortasun iraunkorra.

Horregatik, azken bi urteotan, Udalak herritarren partaidetzarako planak bultzatu ditu, bizigarritasuna indartzeko (Lekunberri Bizigarri), ongizatea bultzatzeko (Lekunberri Suspertu) eta industriarako plan estrategiko bat diseinatzeko (Lekunberri On). Egia da, bere garaian, aldeketek erresistentziak sortu zituela eta egun, berritasunek ere deserosotasunak markatzen dituela, baina garbi dugu aurrera egingo dugula landa eremu bizi-iraunkor eta ziur baten alde. Gure lana eta ardura da, eta horregatik, bere garaian, Udaletxean sartu eta Lekunberriren alde lan egiteko konpromisoa hartu genuen. Komunitatearen eta herri osoaren mesederako erabakiak hartzeko gaude. Hori dela eta, nahiz eta bultzuetan gustuko erabakiak ez izan edo erabaki ez-parteakatuak izan, prozesu biziak, dinamikoak eta denboran irauten dutenak dira, gainera, denbora bat igarota eta beharrezko esku-hartze, egokitzapen eta erregulazio desberdinak eginez, erabaki horien alderdi onak ikusi, bildu eta barneratzen dira. Bide horren alde egiten dugu apustu eta lan, hemengoak garelako, hemengoak sentitzen garelako eta hemengoaz arduratzen garelako.

Norbera ez da jaiotzen den lekukoa edo bizi den tokikoa, sentitzen den lekukoa baizik. Hemen jaio eta bizi izan den bat, zalantzarik gabe, Lekunberriari sentitzen da sutsu. Izan ere, Lekunberriko etxeetan eta Alde Zaharrean haren historia luze eta sakona birsor dezakegu, mugetz, aduanaz eta sutez osatua, eta behin eta berriaz azaleratzen zena gaur egun dena izan arte. Izan ere, Lekunberri beti izan du leku garrantzitsua Nafarroako geografian, eta, ez bakarrik kokapen estrategikoagatik baita hobetzeko eta berritzeko izan duen espirituagatik ere. Erresilientziagatik. Honek, zalantzarik gabe, gure herriaren egungo erronkei aurre egiten jarraitzera bultzatzen gaitu.

Lekunberri, aurrera doan herri.

Urte berri on!

Gorka Azpiroz Razkin,
Lekunberriko Alkatea.

AUZO-LOTSA

Iruñean badago elkarte bat, izena duena, Nafarroako Pertsona Guxitu Fisikoen Elkarte-Koordinakundea. Ez dakit zehazki noiz sortua den, baina kontua da, aspalditik ari dela martxan, eta, koordinakunde horretan, pertsona batek baino gehiagok parte hartu izan dugu, Nafarroa osoan zeuden eta dauden arkitektura oztopoak, kentzen saiatzeko.

Neronek aitortzen dut, sekula santan ez dudala aparteko bokazio berezirik izan, lantegi horietan aritzeko, baina, bizitzan zehar, gizartean sarritan ikusten nuen premiak, behin eta berriz eraman izan nau afera horietan, sarritan aritzera, alegia, oztopo arkitektonikoak borrokatzera.

Zehazki ez dut gogoratzen zein urtetan izan zen, segur aski, 2000 inguruan edo lehenago, baina kontua da, urte hartan udal hauteskundeak zeudela, noski, eta PSNko Javier Iturbe jauna hantxe agertu zitzaigun, Koordinakundearen egoitzan, bere hauteskunde kampaia egitera, eta, nagusiki, honako hauxe esan zigun, hau da, <Botoa ematen badidazue, hauxe eta hauxe egingen dut arkitektura oztopoak desagerrarazteko>. Baina, esateko modurengatik, bazirudien, bozka berari ematen baldin bagenion, lan handia egingen zuela delako arkitektura oztopoak kentzeko alor horretan, baina, bestela, ez, eta nire iritiz, nahiko irudi txarra eman zuen, gure aurrean, behinik behin, bai baitzirudien xantaia egin nahi zigula, hots, botoa niri ematen badidazue, orduan, bai, orduan lan handia egingen dut alor horretan, baina, bestela, ez, edo antzeko zerbait esan nahi izan baligu bezala. Nik pentsatzen dut, barruan ez zela

hura izanen bere asmoa, baina, kanpotik, halako itxura kaskarra eman zuen bederen.

Oker ez banago, hautatua atera zen, hau da, Iruñeko Udaleko zinegotzi aukeratu zuten, baina, uste dut, elbarriok behintzat ez genuela nabaritu egundoko alderik onerako, hirian kendu beharreko oztopo arkitektoniko haien eremuan. Zer egingen diogu, ba?

Xanti Begiristain Madotz (Auritz).

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

 **NEKAZARI, S.L.**

ANTONIO CARRARO
 Olagain. Mugiro. Nafarroa
 Tel.: 948504128
 Fax: 948504377
 nekazarisl@hotmail.com

BIDEGO XOXO JATETXEA
 Jaunartzeak
 Ezkontzak
 Ospakizunak
 Enpresa ekitaldiak
 Usabal Kiroldegia
 20400-TOLOSA 943 577 573
 info@bidegoxo.com

Hostal Betelu
 Eguneko menua,
 karta, plater
 konbinatuak eta pizza
 goxoak
 Etorri eta
 on egin!
 Erreserbak:
 948513026
 618557889

AMAIRU BAR
 GTXOKO PIZZAK,
 KOPA BERGZIAK
 948504352

 **ALIPROX**
 Lekunberri
janaridenda
 hamabostaldiro
 eskaintza bereziak



CONSTRUCCIONES

ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA
665 708 683
 Lekunberri

Ibarreko bi, 'Baserría' programan

Arribeko Haritz Orcaray eta Madozko Edurne Arribillaga ETB1en 'Baserría' programan lehiatu dira. Saioaren ia bukaeraraino ailegatu dira biak, eta harro daude egindako ibilbideaz.

“Errepikatze moduko esperientzia izan da”

“Petatu, Arribeko baserritar modelo” bezala deskribatu zuen bere burua Haritz Orcarayk 'Baserría' programan. Finalaurrekora ailegatu da ETB1en 'reality show' horretan, eta oso gustura aritu da kameran aurrean. Aurrerantzean telebistan segitzea espero du.

Nolatan animatu zinen programan parte hartzera?

Kuadrillako guztiek esan zidaten izena emateko, seguru hartuko nindutela, eta txorakeria modura aurkeztu nintzen, uste bainuen ez nindutela hartuko, eta aurkeztu ziren 600 pertsonetatik ni hartu ninduten. Nire baserriko mundua nolakoa zen azaltzen zuen bideo bat bidali behar izan nuen castingera; izan ere, ni baserritar gisa joan nintzen, ez kaletar gisa, eta, bideo horretan, modelo lanetan aritu nintzela ere sartu nuen, atentzioa emateko. Horren ondoren, prozesuaren bigarren zatian, Donostiara joan behar izan nuen, eta han baserriaren eta nire bizitzaren inguruko galderak egin zizkidaten.

Zergatik aurkeztu zinen baserritar modura?

Oso gutxi aritu izan naiz baserrian; osabari oso gutxitan laguntzen diot. Baina baserritar bezala joan nintzen atentzio handiagoa ematen nuelako baserritar gisa eta erakutsita modelo lanetan aritu nintzela, kaletar gisa eta modelo izanda baino. Kontraste horrekin pentsatu nuen gehiago nabarmenduko nintzela behintzat.

Ainhize kaletarra izan da zure bikotekidea programan; gustura aritu zara harekin?

Joan nintzenez eta ikusi nuenean zein kaletar zeuden, Lucia tokatzea nahi nuen. Ikusi nuen *pijilla* zela, ilehoria, polita... Klaudiok galdetu

Baserrian saioaren une bat. Arg: ETB.



zidanean ere denetatik zein ote nahi nuen, horixe esan nion, Lucia nahi nuela. Baina, hala ere, Ainhize jarri zidatenean bikotekide moduan ere asko poztu nintzen; oso gustura aritu naiz harekin, eta auzerik eza gututa are hobeki oraindik. Lagun bezala ere oso harreman ona dugu, programan nahiz programatik kanpo, asko hitz egiten dugu, eta oso neska jatorra da.

Luciaren bikotekide ez, baina zerbait izan zen zuen artean...

Zita bat izan genuen hasieran, baina ez zen ezer sortu gure artean. Hori dena programak berak prestatzen du, hori bilatzen baitute. Saltsa pixka bat nahi dute, eta hasieran feeling hori izan genuenez, erabaki zuten gu elkartzeari. Baina gero Jokinekin hasi zen erabat, eta ni alde batera geratu nintzen.

Bestela, zer moduz ikusi duzu zeure burua programan? Esperientzia ona izan da orokorrean?

Errepikatze moduko esperientzia izan da. Jendea oso jatorra izan da, oso ongi moldatu gara denok. Alde txarra da telebistak behartu egiten zaituela zuk egin nahi ez dituzun gauza batzuk egitera, baina ez gintuzten behartzen gauza oso arraroak egitera; nahi bazenuen egiten zenuen, eta bestela, ez. Nik normalean beti egiten nuen eskatzen zigutena. Alde horretatik, pixka bat dezepzionatu naute.

Eta probetan ongi moldatu al zara?

Bai, nahiko ongi. Ez zizkiguten baserriko gauza zehatzak jarri egiteko, eta eskerrak! Bestela lehenengotarikoa joango nintzatekeen-eta etxera. Baina sokatiran, adibidez, proba oso ona izan zitekeena indarragatik, azken momentuan nik egin nuen



Haritz Orcaray "Petatu". Arg: ETB

akatsa, eta horregatik galdu genuen, eta etxera joan ginen; baina orokorrean oso gustura.

Horren aurretik beste desafio bat ere egin zenuten, eta irabazi gainera, marmita batzuekin.

Beste bikotea baino hobekien ginelak pentsatuta joan ginen desafiara, eta, suertez, irabazi egin genuen, baina justu proba hori nire aldekoa zelako ere bai, indarragatik.

Hain justu, kanpoan nabarmendu dute nahiko harroa zarela, edo jarrera harroarekin aritu zarela behintzat.

Jende askok esaten dit harroa naizela, ni ezagutu baino lehen ere bai, baina gero ezagutzen nautenean nik uste dut iritziz aldatzen dutela; halere, kanpotik ikusten da harrotasun puntu bat dudala. Igual fisikoagatik uste dute hori, gimnasia joaten naizelako, eta horregatik uste dute handiuste bat naizela.

Zorionez, ama izan duzu debategarria zure defendatzen.

Eskerrak ama joan zen debategarria! Hasieran ez nuen bera joaterik nahi, uste nuelako gainerakoek beren kua-



Baserrian saioaren logotipoa.

"Izaskun oso fuerte ibili da, eta Ainhize ere oso ongi moldatu da"

Baserrian saioaren une bat. Arg: ETB.



drillako baten bat eramango zutela. Amak kendu dit protagonismo guztia. Oso gustura ibili da, eta oso ongi moldatu da gainerakoekin, kariño handia hartu diote. Bera zen denetan zaharrena, eta agian horregatik ere izan da.

Finalurrekora arte ailegatu zarete, oso gutxigatik. Pena?

Bertigo sentitzen hasi nintzen azken proban. Aurreko proban ere gauza bera sentitu nuen, baina jende gehiago zegoenez parte hartzen, disimulatu egin nuen. Azken proba horretan, berri, Ainhize eta biok bakarrik ari ginen, eta beroa sentitzen hasi nintzen bat-batean, mareatuta. Hamar segundoko kontu bat izan zen, eta dena doble ikusten nuen, bueltaka. Ezer egin gabe galdu genuen, ez genuen sufritu ere egin.

Proba hori galdu, eta desafioa egin behar izan zenuten. Alde oso txikiarekin galdu zenuten, gainera.

Bi sagarregatik galdu genuen, 200-300 gramogatik, eta 15 segundogatik. Hor ere oso gutxigatik galdu genuen.

Esperientzia errepikatuko zenuke? Lagunen bati gomendatuko zenioke parte hartzeko?

Esperientzia gomendatuko nuke bizi-zako beste esperientzia bat delako eta lagun berriak egiten dituzulako, eta telebista pixka hari gustatzen bazaizu, are gehiago. Adibidez, nire kuadrillako Ane Zabala asko ibiltzen da baserri munduan, eta hari esango nioke parte hartzeko. Halere, ez dut uste joango zenik.

Azken debatean hori onartu zenuen: zu ez zinela irabaztera joan, telebistan agertzea baizik.

Eta ez ninduten pantailan asko atera, baina tira. Gehienak horretara joan ziren, telebistan agertzea eta fama pixka bat lortzera. Denetatik, hiru edo lau joan ziren benetan saioa irabaztera, eta gainerakoak, aldiz, protagonismo pixka bat lortzera.

Nork merezi zuen irabaztea?

Nire taldeko Asierrek. Oso ongi moldatu nintzen harekin hasieratik, Taniarekin ere bai, baina Asierrek asko demostratu zuen. Azken finean, baseritik bizi da, eta baten batek merezi bazuen irabaztea, Asierrek merezi zuen, ematen zituen aholkuengatik eta guztiagatik. Hark zuen buru gehien.



Lagunasesoría S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

Lontxo
Otamendi
Artola

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

“Oso pozik nago egin dudanarekin”

Eduarne Arribillaga baserrian jαιο, hazi eta bertatik bizi izan da urte luzez, eta ongi baino hobeki erakutsi du baserriko lanak egiteko duen abilezia. Madoztarra finaleraino ailegatu da; brontzezko domina eraman du etxera. Programa grabatu bitartean etxearen berri ez izatea izan da zailena harentzat.



Zuk zeuk erabaki al zenuen programara aurkeztea?

Etxean telebista ikusten ari ginela, iragarkia ikusten genuen, eta horrek zioen parte hartu nahi bazenuen bideo bat bidali behar zenuela. Hala egin genuen: bideotxo bat grabatu, eta bidali. Gero castingera joateko deitu zidaten.

Madotzen bizi zara. Baserrian jαιο, hazi eta hezitakoa?

Baserrian hazitakoa naiz, baina ni lehen nintzen baserritarra. Orain, berriz, telebistako baserritarra naiz, baina lehen nintzen baserrikoa berez.

Baserria utzita, zertan lan egiten duzu gaur egun?

Lekunberrin aritzen naiz, askotariko zerbitzuetan: jardinak moztu, garbiketa, gaur adibidez Olentzero-

ren etorrera prestatu dugu, eszenatokiak... denetarik egiten dut. Etxean ere beti dago zerbait egiteko: baratzea, egurra... Horri eusten diogu behintzat. Beti mantendu izan ditugu terrenoak. Halere, etxean ez dugu animaliarik.

Zer sentitu zenuen programan parte hartzeko aukeratu zintuztela jakitean?

Lehenbizi, urduritasuna. Castingean ez dakizu zer tokatu zaizun... Nire lehenbiziko aldia zen horrelako gauza bat egiten, dena berria izaten da, eta esan zidatenean oporrak eskatu beharko nituela parte hartzeko aukeratu nindutelako, sorpresa hartu nuen. Alde batetik, uste nuen aukerak banituela, emakume baserritarra nintzelako. Baina aurten jende asko aurkeztu omen da programara.

Eduarne Arribillaga.
Arg: Labrit.

“Hasieran nahiko luzea egiten zitzaidan, batez ere ez nuelako etxeokokin hitz egiten”

ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri
📞 616 457 540
✉ construccionesganarbe@gmail.com
📞 636 827 846

“Aktibo dagoen baserritarrentzat zaila da dena utzi eta hara joatea”

Maiatzeko bigarren hamabostaldian grabatu genuen. Hogei egun eman genituen hantxe.

Hogei egun inkomunikatuta? Kanpoko berririk izan gabe?

Hasieran nahiko luzea egiten zitzaidan, batez ere ez nuelako etxekoe-kin hitz egiten. Nik senarra eta hiru mutiko ditut. Gainera, hiru mutikoak txikiak dira, eta ni kanpora joaten nintzen lehenbiziko aldia zen. Baina senarraz fidatzen nintzen.

Nola izan zen hasiera taldeki-deekin?

Urdinekin hasi nintzen, eta gero auzolan probetan urdinek ia dena irabazten genuenez, gorriak etxera joaten ziren. Horrela, bi taldeak desorekatuta geratu ziren, eta talde urdineko bikote bat gorrietara pasatu behar zen. Aurreko egunean aizkorak guri eman zizkigutenez, gorriara joatea erabaki genuen. Gorrian Asier, Tania, Petatu eta Ainhize zeuden, eta haiekin ere oso ongi moldatu ginen, oso ongi tratatu gintuzten hasieratik.

Goiko izan da zure bidelaguna. Zer moduz moldatu zarete?

Goiko nahiko urduria da, ez da geldirik egoten. Duen alde ona da probetan indarra ateratzen duela, eta horrek asko balio izan dit.

Probetan ikusi denaz gain, zer harreman izan duzue lehiakideek?

Denak elkarrekin egoten ginen, talde osoa, eta ongi moldatzen ginen. Baserritarrok harreman handiagoa genuen baserritarren artean, baina kaletarrekin ere oso ongi moldatu gara.

Talde aldaketa egin zenutenean, askok esan zuten orduan hasi zinetela Goiko eta zu nabarmen-tzen, ordura arte “itzalpean” aritu zinetelako.

Bistakoa da Jokin eta Urki gu baino gehiago direla fisikoki, eta auzolan probak irabazten badituzu, gero ez duzu desafiora joan behar; horregatik, dena errazagoa da auzolan probak irabazita. Gure taldearentzat, hobe zen fuerteak hor mantentzea, oso derrigorrezkoa zelako auzolan

probak irabaztea, oso erabakigarriak direlako. Jokin eta Urki nabarmendu dira urdinetan, baina besteek zorte txarra eduki dute. Unai, adibidez, ez zen baserritar txarra izango, baina desafioan nahikoa da akats txiki bat egitea etxera joateko.

Emakume baserritarrek asko erakutsi duzue aurten.

Izaskun ere oso fuerte ibili da, eta Ainhize ere oso ongi moldatu da baserritar bezala, kaletarra izan arren; ia baserritar baten lana egiten zuen. Asko nabari da Izaskun baserrikoa dela.

Izaskunek eta zuk elkarren aurka lehiatu behar izan zenuten programan segitzeko. Gogorra izan zen?

Gu bidali gintuzten desafiora, eta hortxe hautsi zen emakume baserritarrek aurrera segitzeko aukera. Bietako bat gelditu behar zen, eta zaila izan zen irabazteko. Ni aizkorarekin ohituta nago, eta nahiko erraza egin zitzaidan proba.

Finalaren atetara ailegatu zarete.

Hirugarren gelditu gara behintzat, brontzezko dominarekin, podiumera iritsi gara. Oso pozik nago lortutakoarekin. Ez nuen hori espero hasieran, oso pertsona fuerteak zeudelako. Azkenean, suertea lagun eduki dugu, eta horregatik lortu dugu aurrera egitea. Adibidez, Bidaneri marmitekin egokitu zitzaion desafioa egitea, eta kasu horretan ezin duzu ezer egin; eskuek aguantatzen duten arte baino ezin zara lehiatu.

Finalean ere indarra ezinbestekoa izan al zen?

Posteak sartu behar genituen, eta bistakoa zen ni baino askoz altuagoak zirela. Beste biak, Urki eta Asier, erraz ailegatzen ziren, eta posteei emateko ere indarra behar da. Bolekin egin beharreko ibilbidea luzea zen, eta gogorra. Baina pozik nago.

Atzera begira, pozik zaude egindakoarekin?

Bai, pozik gelditu naiz egindakoarekin. Nik jendea joatera animatuko nuke.

Aldabe-Azpiroz garaile Binakako Erremonte Txapelketan



Kemen Aldabek eta Xabi Azpirozek jantzi zuten 2021eko Binakako Erremonte Txapelketa Profesionaleko txapela, finalean Urtega-lon bikotea 35-33 mendean hartuta. Gorriak 1-8 irabazten hasi ziren, baina Aldabek eta Azpirozek markagailua iraultzen jakin zuten. Finala ez zen azken momentura arte erabaki, baina, azkenean, urdinak nagusitu ziren kantxan. Giro paregabera izan zuten Bomberenean. Finala hasi aurretik, minutu bateko isilunea egin zuten Pablo Lecumberri erremontista ohiaren heriotzagatik. Lau jokalariek xingola beltz bat eraman zuten kamisetan, haren oroimenez.

Kanasta eta porteria berriak kirol pistan

Larraungo udaletxe ondoko kirol pistan kanasta eta porteria berriak jarri dituzte; hala, erabiltzaileek baliabide hobek izango dituzte jolasteko. Horrez gain, iluntzen duenean argiztapen publikoa ere izango da pistan.



Beteluko krosa egingo dute ilbeltzaren 16an

Azken bi urteetan pandemiaren ondorioz bertan behera geratu eta gero, XVI. Araitz-Beteluko herriarteko krosa egingo dute ilbeltzaren 16an. 12:00etan abiatuko dira korrikalariak Beteluko plazatik, eta 7,7 kilometro egin beharko dituzte. Emakumezkoetan nahiz gizonezkoetan sailkatzen diren lehen hirurentzat egongo dira sariak: 120, 80 eta 60 euro. Inguruko korrikalarientzat ere sari bereziak izango dira: 50, 40 eta 30 euro. 10:30ean haurren lasterketa izango da. Gaztetxoek egunean bertan eman ahalko dute izena, eta helduek, berriz, www.kirolprobak.net atarian sartuta.

2928 Izan da Larraungo Pilota Elkartearen zenbaki sariduna


Olentzerok atera zuen Larraungo Pilota Elkartek bertako komertzioen produktuekin osatutako saskiaren zenbaki sariduna: 2928 zenbakia duenak irabazi du saskia. Izarne Larretak saldu zuen zenbaki hori. Disfrutatu sariaz!





NEREA URBIZU, 2022KO KORRIKAREN ABESTIAREN ZUZENDARI ARTISTIKOA

HitzEkin izena du 2022ko Korrikaren abestiak, eta Nerea Urbizu arduratu da abestiaren musika sortzeaz. Gainera, zuzendari artistikoa ere izan da, eta Ane Garcia eta Anarirekin batera abesten du. Hitzak, berriz, Sustrai Colina bertsolariak idatzi ditu. Urbizuren arabera, "abestia emozionala da, soziala. Pop kutsua dauka gehienbat, eta hiru adin desberdineko emakume abestua da, gure helduen eta txikien arteko katearen sostengu eta bitartekaritza irudikatzeko".



MAILOPEREN 2022KO EGUTEGIA, ZUEI ESKER!

Harrera oso beroa izan du Mailoperen 2022ko egutegia osatzeko egindako deialdiak, eta zuek bidalitako argazkiei esker egin ahal izan dugu ale honetan doakizuen egutegia. Ura izan da aurtengo egutegia ilustratzeko aukeratutako gaia, eta askotariko argazkiak bidali dizkiguzue. Horregatik, eskerrik asko parte hartu duzuen guztiei, eta jarrai dezagun denon artean Mailope edertzen. Ongi etorri 2022! Urte ezin hobea opa dizuegu denei!

SILVIA VIDAL GABARIN IZANGO DA

Silvia Vidal eskalatzaila Gabari gune irekian izango da ilbeltzaren 15ean, 19:00etan. Txileko Patagonian bizitakoak kontatuko ditu, irudiz lagunduta: zer den pareta batean 33 egunez zintzilik egotea, hilabete eta erdi inkomunikatuta egotea, hamasei egunez materiala eramatea... eta askoz gehiago.



egutegia

egutegia

egutegia

egutegia



LED ARGIAK ERRAZKINEN, ARRUITZEN ETA ALLIN

Larraungo Udalaren 6.500 euroko diru laguntzari esker, LED argiak jarriko dituzte Errazkinen, Arruitzen eta Allin. Inbertsio hori 2021eko aurrekontuen barruan dago. 2019an udaletxean eguzki plakak jarri zituen, eta eraikineko azpiegitura guztiak LED teknologiaz hornitu. 2020ean 15.000 euroko diru laguntza eman zien Etxarri, Uitz eta Aldatzeko kontzejuei, beren herrietan LED argiak jartzeko. Gainera, Etxarriko bordentzako ura ematen duen deposituan plakaz hornitutako ur araztegia jartzea bultzatu zuen.



ANE BARBERIA IZAN DA ARGAZKI LEHIAKETAKO IRABAZLEA

Abenduaren 14an Lekunberriko argazki lehiaketako irabazleak saritu zituzten, udaletxeko Udalbatza aretoan. Honako hauek izan dira irabazleak, hurrenkera honetan: Ane Barberia, Leire Aranburu eta Ana Isabel Martin. Bestalde, Vega Botellok irabazi du Gabonetako apaingarrien lehiaketa. Botellok adierazi du urteko ekitaldi guztietarako apaindu izan dituela balkoiak beti, gustatzen zaiolako, eta eskerrak eman dizkie euren etxeak apaindu dituzten guztiei.

ZAINTZA ONAK FAMILIAN

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak prebentzio programa bat abiarazi du Prebentzio Programaren barruan, Lehen Hezkuntzako seme-alabak dituzten familiei zuzenduta. Bigarrenenez, egutegi bat sortu dute, eta familian osasun emozionala garatzeko mesedegarriak diren alderdiak transmititzea da helburua.

2022
Aria ario

Zaintza onak familian



www.ildua.com

Alde zaharreko lanak, herriarekin eta herriarentzat?

Lekunberriko alde zaharrean joan-etorriak eta aparkalekuak arautu dituzte, eta hainbat pibote eta seinale jarri dituzte horretarako. Horren helburua da trafikoa erregulatzeko eta segurtasuna bermatzea, baina alde zaharreko bizilagun asko ez daude ados; uste dute bertakoen bizimodua "oztopatu" egin dutela eta ez dutela beren iritzia aintzat hartu lanak egiterakoan. EH Bildu ere aurka agertu da.

20



Udaletxe aurrean jarritako piboteak. Arg: ETB.

Lekunberriko alde zaharrera sartu, eta nonahi ikus daitezke orain piboteak, seinaleak, harrizko hesiak... baita auto gutxiago ere. Lehen, kalearen bi aldeetan eta edozein tokitan aparka zitekeen, edo aparkatu ohi zen behintzat, eta orain, aldiz, Lekunberriko Udalak ibilgailuen joan-etorriak eta aparkalekuak erregulatu ditu, alde zaharrean ibiltzen direnen segurtasuna bermatzeko. Halaber, egindako lan horiek ez dira herritar guztien gustukoak izan. Hain zuzen ere, alde zaharreko hainbat bizilagun eta komertzio elkartu, eta sinadura bilketa bat egin dute lan horien aurka: 600 sinadura baino gehiago bildu dituzte. Salatu dute bertako bizilagunen iritzia kontuan hartu gabe egin dituztela obrak, eta zeuden arazoak konpondu beharrean, beste arazo batzuk sortu dituztela; aparkatzeko arazoak eta bizilagunen arteko liskarrak, besteak beste. Udaleko oposizio EH Bildu ere alde zaharrean egindako aldaketen aurka agertu da, eta adierazi du prozesua "modu desegokian" eta "gardentasunik gabe" egin dela. "Hemen ez zegoen arazorik; arazoa udalak berak bilatu du. Hemen bizigaren bizilagunak ez gara sekula aparkalekuez kexatu, eta orain jada ia ez dago aparkatzeko tokirik". Saindurik hitz egin du Lekunberriko alde zaharreko bizilagun Jesus Mari Albenizek. Plazan dagoen Albi tabernaren jabea da, eta, beste bizilagun batzuekin batera, bera arduratu da obren aurkako sinadura bilketa egiteaz. Uste du oso tristeza dela herritar ba-

tek bere etxean bertan aparkatu ezin izatea, orain arte ahal izan duenean. Hala ere, Gorka Azpiroz Lekunberriko alkateak azaldu duenez, urte askoan aipatu izan den arazo bat da alde zaharreko trafikoa, eta horrexegatik heldu zioten kontu horri legegaldia hastean. Gainera, nabarmendu du ekinbide hori ez zutela martxan jarri aparkatzeko arazoak zeudelako: "Aparkatzeko erregulazio faltak sortzen zituen arazoak ziren oztopoa".

Trabak eta arazoak

Albenizen ustez, alde zaharrean bizi ez diren askoren eskutik etorri da lan horiek egiteko eskaria, eta arrazoietako bat izan da plazan jolasean aritzen diren haurrak: "Haurrek hemen jolastu dezaten nahi dute, eta badirudi hori dela garrantzitsua, eta horretarako moztu behar dela zirkulazioa, kontuan hartu gabe hemen bizi garen bizilagunok erosi genuela plaza hau hemen etxebizitzak erostean". Edurne Etxarri da alde zaharrean bizi den beste bizilagunetako bat, eta nabarmendu du plaza helduentzat ere badela: "Plaza publikoa da, denona da. Haurrek jolasteko eskubidea daukate, baina dena trabaz bete dutenez, haurren mugimenduak ere aldatu egin dira. Hori bai: gurpil aulkian eguzkia hartzeraz heldu den emakumeak ere hemen egoteko eskubide bera dauka, inork molestatu gabe".

Horrez gain, Albiren jabeak nabarmendu du Lekunberriko zerbitzu asko alde zaharrean daudela, eta obrek ekarri dutela bezero asko beste toki batzuetara joatea erosketak egitera edota tabernan kontsumitzera: "Hemen ezin badute aparkatu, beste leku batera joaten dira". Alabaina, Azpirozen arabera, lanak bukatzen dituztenean aparkaleku kopuru bera edo oso antzekoa egongo da alde zaharrean, eta aparkaleku falta ez da arazo: "Konparazio nahiko zaila da, lehen nonahi eta nolanhari aparkatzen zen eta. Frontoiko aparkalekuan 50 plaza inguru daude orain erregulatuta eta margotuta, eta udaletxeko atzeko parte horretan hogeita hamar aparkaleku berri egingo ditugu. Alde zaharrean ez dago bizilagunentzat aparkaleku falta". Zamalenatarako plaza



Albi tabernaren atzean auto batzuk aparkatuta. Arg: Labrit.

itxiko duten beldur dira alde zaharreko bizilagunak, baina alkateak esan du oraingoz ez dutela itxiko, eta itxiko balute deskargatzeko beste toki bat jarriko luketela.

Gainera, Etxarrik azaldu du bere amak gizarte zerbitzuek onartutako dependentzia daukala, eta aldaketek zuzenean eragiten diotela: "Nire amak behar duen edozein zerbitzu etorri behar denean, medikuak edota erizainak, ezin dute etxe azpian aparkatu, eta hori erreklamatu egin dut, legez jarri egin behar dutelako". Esan du mugitzeko zailtasunak dituzten asko bizi direla alde zaharrean, eta jarri dituzten piboteak eta trabak oso desgogokiak direla haientzat: "Hesi horiek guztiak pasatu behar dituzte; trabak eta barrerak baino ez dira".

Prozesuaren gardentasuna

Halaber, arazo nagusia bera da bai Etxarrentzat, bai Albenizentzat: "Arazo nagusietako bat ez dutela ez bizilagunekin, ez zerbitzuekin ezer kontsultatu; herri batean hiri batean baino erraztasun gehiago izan beharoko genituzke". Gauzak hala, alkateak esan du 2019. urtean hasi zirela lan horiek egiteko prozesuan, Lekunberriko Taldeak eta EH Bilduk euren programetan zehaztu bezala. 2020an Lekunberri Bizigarri izeneko prozesu parte hartzaile bat abiarazi zuen udalak, eta ikerketa profesionala nahiz proiektua bera ohiko komunikabideetan argitaratu zituztela azaldu du: "Bi prozesu horietatik ateratako ondorioekin, Nafarroako Gobernuak



Albi taberna. Arg: ETB.

atera zuen diru laguntza deialdi batean parte hartu genuen, eta bigarren posturik onena lortu genuela jakitean, beste prozesu parte hartzaile bat deitu genuen 2021eko irailean. Prozesu horretan, udalak aurkeztutako proiektua azaldu genuen, zeuden iritziak eta ekarpenak jaso genituen, eta zalantzak erantzun genituen. Horren guztiaren ostean hasi ginen lan hauek egiten”.

Baina alde zaharreko hainbat bilagunek eta udaleko oposizio talde EH Bilduk ez dute prozesua hain garden ikusten. Albenizen arabera, proiektua osoko bilkuran onartu aurretik zegoen jada martxan, eta EH Bilduk ere adierazi du plan urbanistikoa egin ondoren ekarri zuela Le-

kunberriko Taldeak udal batzarrera, hor onartua izan zedin. “Zentzuak eskatzen du lehenik udal batzarrak aztertu behar lituzkeela aktuzioa eta planaren fase guztiak, eta onartu ondoren hasi gauzatzen. Kasu honetan, alderantziz gertatu da: lehenik egin eta gero onartu. Gainera Lekunberri Bizigarri diagnostikoan, Lekunberrik dituen mugikortasun arazo batzuk ageri dira, eta gaur-gaurkoz ez dago ekintza plan zehatzik horiei aurre egiteko.”, esan du EH Bilduk ohar baten bidez. Gainera, gehitu dute udaleko taldeak ez duela landu proiektua oposizioarekin, eta “aldebakartasuna” erabilia egin dituela aldaketak plaza inguruan. “2021eko irailaren 22an, bilera informatiboa antolatu zuen udalak. Ez zen izan prozesu parte hartzaile bat, informazioa emateko bilera bat baizik. Herritar batzuek beren desadostasuna azaldu zuten gauzak gaizki egiten ari zirelako, eta ekarpenak ere egin zituzten, eta adierazi zitzaie ez zegoela denborarik ekarpenetan luzatzeko, udalak dirulaguntza bat jaso zuelako eta epekin estu zebilelako”. Azpirozek beste argudio bat eman dio horri: “Ez dezagun dena nahastu. Noski diru laguntza jasotzeko epeak bete behar direla, eta hori betetzeko lana egin da, baina lanak prozesu parte hartzaileen bitartez ahalbidetzen ziren, eta batzarrean bertan plan osoa onartzen da, dirulaguntza bermatzen duena eta gehiago”.

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, errokilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

German Lasarte

ARBEONDO HARATEGIA

Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

Haatik, alkateak adierazi du egin-dako guztiaren informazioa beti helarazi zaiela herritarrei: "Egin denaren informazioa beti egon da sare sozialetan, prentsan, webgunean, Whatsappean, irratian eta karteletan". Kontrakoa adierazi du EH Bilduk: "Udalak ez ditu ohiko komunikazio kanalak erabili herritarrei alde aurretik informazioa emateko. Bilera informatibo batetik harago, herritarrei inork ez die azaldu zer egingo zen, zergatik eta zertarako. Hor ere, lanak egin ondoren bidali du gutun bat alkateak etxeetara azalpenak emateko". Haatik, alkateak erantzun die zuzeneko bilera bat eska dezaketela informazio gehiago behar dutenean, bai udal gobernuari, bai arkitektoari.

Sinadurak, mozioak eta instantziak

Alde zaharreko bizilagun batzuek 600 sinaduratik gora bildu dituzte lanen aurka, eta udalean aurkeztu. Halere, alkateak azaldu du aztertu beharko dutela sinadura horiek balizkoak diren: "Zenbait bikoiztuta daudela ikusi dugu, eta horietako asko Lekunberri-tarrak ez direnenak direla". Hala, urtarriean biltzea adostu dute bi aldeek. Horrez gain, Albenizek instantzia bat aurkeztu du, eta Azpirozek baieztatu du erantzungo diotela. EH Bilduk, berriz, mozio bat aurkeztu zuen udal batzarrean, eta eskatu zuen Lekunberri Bizigarri izeneko prozesu parte hartzailetik atera zen diagnostikoa

herritarrei jakinarazteko. Behin herritarrei informazio hori emanda, plan integral bat osatzea izango litzateke pauso logikoa, baina hemen ez da halakorik egin". Azaldu dutenez, Lekunberri Taldeak atzera bota zuen haien proposamena. Halere, alkateak adierazi du erantzun zietela, esanez pandemiak sortutako egoera kontuan hartuta prozesuak parte hartze handia izan zuela eta aurkezpena hainbat kanaletan argitaratu zutela, besteak beste, baita ondorioen berri eman ere.

"Mugikortasun jasangarria sustatzea izan beharko luke helburua, herritarrekin batera prozesu integral bat landuz. (EH Bildu)"



Kamioi bat plazan deskargatzen. Arg: Labrit.

MAILOPEKO BAZKIDEA
IZAN NAHI DUZU?
mailope@labrit.net

Errotaldea 19,
Lekunberri
www.martilotxiki.com
679 938 016

MARTILLO TXIKI
PERKUSIO ESKOLA

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIAK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.

ZURGINTZA OROKORRA

INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxe: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA

Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

ekin
rotulación

948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

“Liburutegiak bizia izan behar du”

Mitxausenea kultur etxeko liburutegiak aurrerapauso handi bat eman du automatizazioan: liburu guztiak digitalizatzen ari dira, Nafarroako Liburutegien Sarearen Katalogoan sartzeko, eta Nafarroako Liburutegien Sareko txartelaren bidez, herritarrek eBiblio Navarra, eFilm Navarra eta InfoMagazine Navarra plataformak dohainik erabiltzeko aukera izango dute, besteak beste.

Zer ari zarete egiten zehazki ?

Liburutegi osoko erreferentziak, liburuak, DVDak eta halakoak digitalizatzen ari gara, hau da, Nafarroako Liburutegien Sarean sartzten ari gara hori guztiak. Liburuz liburu ari gara, etiketa kendu, erregistratu, eta barra kodea eta zigilua jartzen dizkiogu. Aurrerantzean, prozesua bukatzen dugunean eta prozesua bukatu bitartean ere, Nafarroako Liburutegien Sareko txartelarekin funtzionatzen ari gara Lekunberriko eta Larraungo udal liburutegian.

Zer abantaila eskaintzen du Nafarroako Liburutegien Sareko txartelak?

Eskaintzen duen abantaila nagusia da Nafarroako liburutegi guztietan har dezakezula libururen bat, nahi duzuna. Horrez gain, baditu beste abantaila batzuk ere: Nafarroako Liburutegien Sarearen Katalogoan zure interesekoak diren liburuak edota DVDak kontsulta ditzakezu, eta baita erreserbatu ere. Gainera, sareak plataforma batzuk ditu martxan: eBiblio Navarra, eFilm Navarra eta InfoMagazine Navarra plataformak. Txartel horrekin, horiek dohainik erabiltzeko aukera daukate erabiltzaileek, eta milaka liburu, film edota aldizkari

“Aspalditik etxean liburuak dituztenei deika ari naiz, mesedez buelta ditzatela eskatzeko”

eskuratu ahalko dituzte. Horietarako sarbidea txartelaren zenbakia eta datu pertsonalak baino ez dira.

Zer produktu daude plataforma horietan?

EFilmen pelikulak daude, eta izugarrizko katalogo ederra dauka. EBiblion, berriz, liburu digitalak eta audio liburuak daude, eta InfoMagazinen aldizkariak daude. Oso ongi daude denak. Gainera, bazkide izanda dohainik dira denak, eta hori luxu bat da, are gehiago garai hauetan.

Jendea ari al da txartela egiten? Asko animatu dira?

Orain ari naiz txartelak egiten. Jendea nahi duenean etor daiteke txartela egitea, eta horrekin nahikoa da aipatutako kontu guztietara sarbidea izateko.

Zer datu behar dira txartela egiteko?

Izen-abizenak, helbidea, telefonoa,

M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

Diario Vasco eta Diario
de Navarrako
Korrespontsala


948513056
699179437



Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151



948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

BERTAKO
HARAGIA

Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako
platerak.
Etxera eramateko
zerbiztua ere
eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

Bi igela



posta elektronikoa, NAN zenbakia eta jaioteguna, besterik ez. Hemen segituan ateratzen dugu argazki bat, eta horrekin nahikoa da abantailez gozatzeko. Orain aspalditik etxean liburuak dituztenei deika ari naiz, mesedez buelta ditzatela eskatzeko.

Txartelaz gain, esan duzu liburuak digitalizatzen ari zaretela. Zertarako?

Adibidez, dena digitalizatzen dugunean, Nafarroako Liburutegien Sarearen Katalogoan sartu eta edozein tokitatik kontsulta dezakezu hementiko liburutegian zein liburu dauden. Ikusteaz gain libre dagoen, hartuta dagoen, edota noiz arte dagoen erreserbatuta, zuk zeuk ere erreserba dezakezu, nahi duzun datarako; ez duzu honaino etorri behar liburu bat erreserbatzeko.

Beste liburutegi batzuetan ere jarri dute martxan prozesu hau?

Orain dela urte dezente hasi zen prozesu hau, eta orain Sartagudakoa eta Lekunberriko liburutegia ari dira hori egiten. Prozesu hau egin dutenez gain, Nafarroako liburutegien sarearen barruan badira beste hainbat eta hainbat liburutegi, baina ez dira pro-

zesu horretan hasi, agian txikiagoak direlako edo beste edozein arrazoi dela medio.

Noiz amaituko duzue?

Nafarroako Gobernuak 4.400 ale sartzeko kontratua egin zuen, baina guk hemen 9.000 liburu inguru ditugu, eta ez dakit nola egingo dugun guzti-guztiak katalogatzeko. Gainera, garbiketa pixka bat egiteko ere aprobeztatu dugu prozesu hau, aspaldiko liburuak eguneratzeko, jada erabiltzen ez direnak kentzeko... Liburutegiak bizia izan behar du, eta liburutegira datorren jendearen arabera liburuak izaten saiatu behar zara; gutxi gorabehera, datorren jende guztiaren interesekoak diren liburuak izaten.

Herritarrak joaten al dira Mitxau-senea kultur etxeko liburutegira? Bizirik dago?

Haurrek liburu pila bat hartzen dituzte. Helduek ere hartzen dituzte, emakumezkoek batez ere; esango nuke libururen bat hartzen duten hamarretik bederatzia emakumezkoak direla. Garbiketa eginda soberran ditugun liburu horiek guztiak Araizko liburutegira doaz.

Baziren behin batean bi igela. Izaera desberdina zuten. Haietako bat konformista zen eta, maiz, bere buruan baino gehiago kanpoko laguntzan konfiantza handiagoa izaten zuen. Besteak, aldiz, bere indarretan sinesten zuen eta kanpoko laguntza noizean behin baino ez zuen behar izaten.

Goiz batean, bi igelak abiatu ziren putzu baten bila, mendia oso lehor baitzegoen. Bide luzea egin ondoren putzu zuri batera iritsi ziren eta, bi aldiz hausnartu gabe, bertara salto egin zuten. Ez zen ura, ordea, putzuan zegoena, esne-gain lodia baizik. Hasi ziren igerian biak baina kostata, erraz hazten ziren ondoratzen likido likats hartan. Bere buruan konfiantza txikia zuen igela oso urduri jarri zen eta beldurrak heldu zion. Laguntza! egiten zuen oihera, igeri egiten saiatzen zen bitartean, baina inork ez zuen laguntzen. Laster, itxaropen guztiak galduta, indarrak ahituta, adore eman zuen. Azkar ondoratu eta ito egin zen. Beste igela, aldiz, segi zuen igerian mantso indarrak gordetzeko. Eustea erabaki zuen, alegia, ahal zen bitartean igeri egiten segitzea. Sentitzen zuen nolabait iritsiko zela soluzioa. Igeri egin eta egin, likido ura gogortzen hasi zen, alegia, esnegaina gurina bihurtu zen eta orduan igela ganean jarri eta putzutik kanpora salto egin zuen. Agerian geratzen da, hor nonbait, geure baitan daudela geure indarrak, geure baitan dagoela zailtasunei aurre egiteko bidea.



Harrera beroa egin diete Olentzerori eta Mari Domingiri

Aurtengo Eguberriak ere pandemiak baldintzatu ditu, baina, halere, herritarrek ez dute jai horiek ospatzeko ilusioa galdu. Beteluko eta Lekunberriko eskoletara joan ziren Olentzero eta Mari Domingi abenduaren 22an, eta ikasleek Gabon kantak abestu zizkieten. Gainera, Eguberri bezperan kaleak alaitu zituzten herritarrek, etxez etxe abestu baitzuten.

26



Olentzero eta Mari Domingi Printza atarian. Arg: Labrit.



Ibarberri eskolako ikasleak. Arg: Labrit.



Gazteak Larraunen kantuan. Arg: Larraungo Hazia.

Araxes eskolako ikasleak kantuan. Arg: Labrit.



Olentzerorekin kantuan Betelun. Arg: Labrit.



Araitzen eta Betelun ere kantuan ibili ziren. Arg: Aitor Goikoetxea.

IDIAZABAL

Antsoenea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZA

634 551 743
infoaralar@gmail.com

SABA DA MALLOAK BERBERA

ARTZAI GAZTAK

Granja Martikonea, GAIINTZA, Nafarroa
Jabi, 649 472 057 + Josune, 680 511 097
Malloak.com | info@malloak.com

IDIAZABAL

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

Estimulazioa, zaintzaz harago

Lekunberri Larraun Eguneko Zentroan pertsona da ardatza, eta, hain zuzen, erabiltzaileen gaitasun kognitibo eta fisikoak ahalik eta hoberen mantentzea dute helburu, bizi kalitate hobea izan dezaten. Pandemiak egoera zaildu die zentrokoei ere, baina egoerari aurre egiten jakin dute, eta erabiltzaileak betiko ilusioarekin joaten dira hara eguna igarotzera.

Lekunberri Larraun Eguneko Zentroa baliabide soziosanitarioa da, egunean zehar adinekoei arreta integrala ematen diena. Gaur egun, hemezortzi lagun elkartzen dira han, eta langileek hainbat eta hainbat jarduera prestatzen dituzte haientzat. Entretentzeko jarduera horiez gain, baina, estimulazio kognitiboa eta fisikoa lantzen dute, eta, horretarako, fisioterapeutak, psikologoak, terapeuta okupazionalak eta abar aritzen dira lanean zentroan. Hain zuzen, pertsona da eskaintzen duten arretaren ardatza. Horrek esan nahi du indibidualki lan egin behar dutela erabiltzaileekin. Hauek dira zentroaren helburuak: ahalik eta autonomia eta funtzionaltasunik handiena sustatzea eta mantentzea; mende-

kotasunari aurrea hartzea, gaitasun kognitiboak, funtzionalak eta sozialak indartuz; ongizate emozionala; eta zaintzailearen gainkarga arriskua murriztea. Silvia Otermin eguneko zentroko zuzendariaren eta gizarte langileak azaldu duenez, erabiltzaileak erabat daude estimulaturik eguneko zentroan: "Zentro txiki bat da, eta aukera dugu pertsonak banan-banan ezagutzeko eta jakiteko zer gustatzen zaien, zer egiteko gai diren eta zer ez... Gizarte langileak, arreta zuzeneko profesionalak, terapeuta okupazionalak, psikologoak eta fisioterapeutak etortzen dira".

Lekunberri eta Larraun ingurutik doaz erabiltzaile asko, baina inguruan eguneko beste zentrorik ez

dagoenez, zona dezente zabaltzen dela adierazi du zuzendariak; horrela, Lekunberri eta Larraungo erabiltzaiez gain, Leitzakoak, Irurtzungoak eta Izurdiakoak ere badituzte, besteak beste. Erabiltzaileen joan-etorriak errazteko eta nahi duenak zentroa joan ahal izateko, furgoneta bat erabiltzen dute. Gainera, orain dela gutxi Larraungo eta Lekunberriko udalek furgoneta berri bat erosi dute, eta datorren hilean espero dute horrekin hastea.

Etiket ateratzeko beldurra.

Zentroa orain dela hamar urte ireki zuten. Hasieran, enpresa pribatu batek kudeatzen zuen, baina gaur egun, Lekunberriko Garapen Elkarteko langileak dira zentroan aritzen direnak.



Silvia Otermin eta zentroko langile bat, erabiltzaile batekin. Arg: Labrit.



Zuzendariak azaldu duenez, hasieran kosta egin zitzaien eguneko zentroa martxan jartzea, inguruko jendeari asko kostatzen zaiolako etxetik ateratzea: "Herrietako mentalitatea hirietakoa baino askoz zailagoa da; jendeak uste du inon ez dagoela etxean baino hobeki. Baina guk ez dugu nahi jendea instituzionalizatzea. Guk nahi dugu jendea bere etxean bizitzea baina, aldi berean, estimulazio kognitiboa eta fisikoa ere lantzea, eta hori da guk eskaintzen duguna".

Eguneko zentroko erabiltzaileek ez daukate aspertzeko aukerarik. Zentroa LARES Nafarroako zahar etxeen eta eguneko zentroen elkartearen barruan dago, eta hainbat ekintza egiten dituzte haiekin. Horrez gain, jokoak, eskulanak eta irratsaio bat ere prestatzen dute ostiraletarako, eta lehiaketa txikiak ere antolatzen dituzte. Pandemiak gogor astindu ditu bazterrak, eta eguneko zentrokoentzat ere garai zailak izan dira, baina ilusioari eusten diote, eta zentroan aurkitzen dute pozik bizitzeko motibazioa.

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 948 980 437 edo 616 397 044 zenbakietara.



Erabiltzaile bat ariketak egiten Arg: Labrit.



GURE IZEN-ABIZENAK, EUSKAL GRAFIAZ

Euskal izen-abizena modu ofizialean eta leku guztietan euskaraz idatzita izan nahi baduzu, hiru pausutan egin dezakezu; erraza da:

- 1- Erregistro zibilera edo bake epaitegira joan, eta esan izen-abizena euskal grafiaz ipini nahi duzula.
- 2- Han emango dizuten eskaera orria zure datuekin bete.
- 3- Agiri hauek eraman:
 - Nortasun agiriaren fotokopia. Adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere beharko duzu.
 - Hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria. Epaitegian eskatzen da.
 - Errolda agiria. Udaletxean eskatzen da, eta, adinez nagusia ez bazara, gurasoena ere beharko duzu.
 - Familia liburuaren fotokopia. Ezkonduta bazaude edo seme-alabarik baduzu.
 - Seme-alaben nortasun agiriaren fotokopia. 16 urtetik gorako seme-alabak badituzu.

Zure izena edota abizena euskaraz nola idatzi behar den kontsultatzeko, www.euskaltzaindia.eus helbidean sartu.



**AURRERA
TABERNA**
ARALAR, 15
948 60 47 24

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza


urrutia
enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA

696 658 288
LEKUNBERRI

ce consulting
empresarial
ANA RAMOS MARTÍN
GESTORIA
666 939 332
aramos@ceconsulting.es

GALBURU
okindegia - panadería
Egur-labeen egina!

Alde Zaharra 50
LEKUNBERRI
948 50 40 42

AGENDA



ILBELTZ

8 - Herri kirolak Araitzen, Josetxo harri jasotzailea, Soroa aizkolaria eta sokatira saioa. Eguraldi ona eginez gero, Arribeko plazan; bestela, Atalluko frontoian. 17:30etan. Araitz-Beteluko Sarek antolatuta.

9 - Printzan: 'Mandamentu hipermodernoak' liburuaren aurkezpena, Iñigo Martinez idazlearekin, 17:00etan.

15 - Silvia Vidal eskalatzailearen hitzaldia, Gabari gune irekian, 19:00etan.

16 - Araitz-Beteluko krosa, 12:00etan.

28 - Printzan: Jurgi Ekizaren kontzertu akustikoa, 19:00etan..

30 - Printzan: Jurgi Ekizaren kontzertu akustikoa, 19:00etan.

INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO, SARTU WEBGUNEETAN



Sare.eus:



Printza Youtuben:



Printza Twitterren:



IORTIA CLÍNICA DENTAL · HORTZ KLINIKA

Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKEKAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

urte berria, erronka bera!

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

MAILOPE

BAZKIDETZA EGITEKO BIDEAK

MAILOPE@LABRIT.NET

638652339

WWW.MAILOPE.EUS/BAZKIDETZA